

LANAREN LABURPENA

Gure proiektuak "Fantasy Travel" du izena, gure enpresaren ideia parke bat da, beste edozein parkeek eman dezakeenaz bestelako esperientzia bat eskaintzen duena; 3 urte beherako haurrak dituzten familiei lagundu ahal izateko. Hasiera batean, proiektu hori erabat doakoa da oinarrizko jardueretako, esate baterako, paseoak emateko. Aitzitik, yoga klaseak, haurtzaindegia edo kafetegia bezalako jarduerak ez dira doakoak izango. Familiek abantaila horiez gozatu nahi badute, tasa zehatz bat ordaindu beharko dute, eta tasa horrek identifikazio-txartela eskainiko die.

Hasteko, argitu behar da parkea bi sektoretan banatuta dagoela: batetik, paseoak eman ahal izango dituzten parkea, eurite- eta hotz-estazioetarako estalita egongo dena, eta, bestetik, zerbitzu eta jarduera desberdinak eskainiko dituen eraikina. Parke honek hainbat erosotasun eskaintzen ditu jarduera-eraikinean, hala nola 24 orduko haurtzaindegi zerbitzua kafetegi baten ondoan, gurasoek atsedean hartu eta aisialdiaz gozatu ahal dezaten. Gainera, parkeari dagokionez, hainbat eremutan banatuta egongo da, hau da, gune bakoitzak helburu desberdina izango du (edoskitze-guneak, pit-stop guneak, jolas sensorialak eta abar). Gainera, parke osoak hainbat erliebe izango ditu paseatzeko eremuetan, haurtxoari esperientzia eta sentrazio desberdinak eskaintzeko, publizitate-panel batzuk izateaz gain. Hori guztia hurrek beren gaitasunak adin goiztiarrean garatu ahal izan ditzaten.

Denda fisiko bat jarriko dugu haurrak hazteko beharrezkoak diren produktuak saltzeko, hala nola biberoiak, pixoihalak eta abar (parkeko banaketa-makinak ere izango ditugu, gurasoek, larrialdiren bat izanez gero, behar dutena lor dezaten). Produktu horiek ez ditu gure enpresak berak ekoitziko, eta beste konpainia batzuei erosiko edo eskatuko zaizkie publizitatearen truke.

Batez ere, gure diru-sarrerak alde desberdinetako ekarpen txikiak izango dira; dendetatik, publizitate-paneletatik eta bazkideen txarteletatik lortuko dugun etekina.

Hasieran gure proiekturako besterik pentsatu ez badugu ere, etorkizunean munduan zehar hedatu nahi dugu. Horretarako, aplikazio bat eta web orri bat sortuko ditugu gure enpresari eta zerbitzuari buruz.